

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari@egunkaria.com



Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

Euskaldun inozoak

Joseba Brit Elola • ORIO

2001-2002 kurtsoa amaitu berri dugun honetan, ikasle askori ditzosozko selektibitatea egin beharra suertatu zaigu. Donostiara iritsi, unibertsitatean sartu, ba-koitza bere tokian eseri, eta azken bi urteotan ikasitakoa hiru egunean jokatu behar. Kirioak dantzan, gaztelaniazko testua iritsi da gure eskuetara: «Eximio». Tirriña, kakalarria, beherakoa, beldurra, harridura. Testua irakurri ondoren areagotu egin zen beldur hori; Celari buruzko testu bat zen, testu zaila, benetan. Sekula ikusi edo imajinatu gabeko hitz neurtu ezinekoak ziren nagusi infernu hartan. Ulertu ondoren (ulertu diot, baina tira) testu honen iruzkina egin behar zen; laburpena, gaia, antolaketa, hizkuntzaren funtzioen azterketa, tipologia testuala (maila lexiko-semanticoa eta morfositaktikoa) eta iritzi testu bat. Testua ulertzen nahikoa arazo edukitzeaz gainera, hori guztia egin behar; a ze kuxidadea egin genuen guztiok!

Maisuak ere haluzinatu egin zuen testuarekin. Tira, nolabait egin genuen azterketa hura, baita beste gehienak ere, euskarazko azterketa iritsi zen arte. Tirriña ez, amorrua, gorrotoa. Alberto Iñurra-tegiri buruzko testu bat zen: orain gutxi Annapurna igo duela, 14 zortzi milakoak egin dituela. Bost galdera txatxu erantzun eta kirolari buruzko testu libre bat egin behar genuen. Galderak honelakoak ziren: «zenbat zortzimilako igo ditu Albertok?», «zein mendi igo du azkena?». Zer da hori, baina! Hori nire bost urteko lehengusuak ere egin dezake. Testuan jartzen zuena literalki kopiaitu baino ez zen egin behar: «14 zortzimilako igo ditu». Horrelako bost galdera erantzunda

azterketa gaudituta zegoen, eta beste bost puntu kirolari buruz egin beharreko hogeitazko idazlanean jotzen ziren. Gainera, beraiek ematen zituzten zenbait ideia: hauen hazkundera, drogak... Zer da hori, ordea! Euskaltegia pare bat aste igarotakoak ere egingo luke hori, ziur. Ingeleseko azterketan ere maila altuagoa eskatu ziguten, zenbait galdera eta 130 hitzez aparte, bi esaldi egiaztatzeko eskatzen zuten; gure maila ikusita, tira, ez da gutxi.

Horrekin zer esan nahi da, gaztelania dela hemen garrantzi handiena duena, gure lehen hizkuntza dela, eta euskara apur bat ulertuta aski dela? Nahikoa dela testu ziztrin bat ulertzea, eta soilik gaztelanian dominatu behar ditugula funtzio poetiko, metalinguistiko eta morfosin-

taktikoak? Agian arrazoi izango dute; gaztelania munduko hizkuntzarik erabiltzenetako da, eta euskara Euskal Herrian soilik mintzatzen da, eta ez du axola bere historia zaharrak, jatorri ezezagunak izateak eta pairatzen duen egoera tamalgarriak. Izan ere, euskaldunok beti izan gara analfabeto gisa ezagunak. Faborez! Azterketa hori euskaldunontzat irain hutsa izan zen.

Gero lehendakariak dio euskara serio hartu behar dugula, enpresetan eta politikan ere erabili beharra dagoela. Bada garaia bromak alde batera uzteko. Aitzakia zein da, askok euskara ez dutela etxean ikasi eta oso larri dakitela? Bada beraienez kalte. Euskal Herrian gaude, euskararen herrian, eta euskarak badu bai aberastasun literarioa. Askok erdara ez dugu

etxean ikasi, ikastetxean ikasi dugu, eta egia esateko ez dugu batere erabiltzen. Nire helburua ez da euskarazko azterketa zailtzeko eskatzea, euskara apur bat serioago hartzeko eskatzea baizik, gaztelania euskara baino garrantzitsuago dela baitzirudien.

Mutrikuko herria... Mutriku maitia... tori portu berria

Idoia Arrillaga • MUTRIKU

Zurrumurruek diotenez Eusko Jaurlaritzak Mutrikuko alderdi politiko guztien babes eskatzen zuen portu berriaren inguruan, eta bai horrela lortu ere. Bitartean, non gelditzen gara alderdi ezberdinetako herritar soilak? Non jasoko dira gure iritzi eta kezak? Demagun Mutrikurentzat beharrezkoa dela babes dike bat, baina zein eta nola? Sarrerak bakarrik al dauka portuaren egoera penagarriaren errua? Ez al dago gure herria suspertzeko beste modurik?

1. eta 2. faseak argazkien bidez ikusi ditugunean -noizko fase-helburu-ondorio guztiak-, galdera gehiegi bururatu zaizkigu: zilegi al da oraindik ez jakitea zein izango den portuaren definizioa (A. Amannen hitzetan merkatal portua)? Zilegi al da hondartza porlanagatik aldatzea? Aisialdirako hain garrantzitsuak diren hondartza-itsaso-lurraren erabilpena eta deuseztapena zeren ordainetan izango da? Zergatik Eusko Jaurlaritzak bere begitxoak gure herrian bota ditu? Ez al da Mutrikuko herri nortasuna moila berriarekin guztiz desagertu eta aldatuko?

Zein etorkizun nahi dugu gure gazteentzat? Zenbat lanpostu duin sortuko dira?

Ama lurra defenda dezagun! Txikiziorik ez!

hemeroteka



galdeiozu... ?



IKER POU

Eskalatzailea

Euskal Herrian goi mailako eskalatzaileak zaudete. Egiturak eta eskalada eskolak ere goi mailakoak al dira ala badago hobetzerik? Zeintzuk dira gune egokienak?

Eider Zabaleta (Hernani)

Euskal Herrian maila oso altua da, mendian eskalatzeko aukerak handiak dira beste leku batzuekin konparatuz, eta hori nabaritzen da jendearen mailan. Leku interesgarrienak zailtasunari dagokionean: Baltzola, Santa Kurutze Kanpezu, Araotz, Larraona... sekulako lekuak dira eskalatzeko. *Indoor* arloan oraindik asko dago hobetzeko, baina ezin gara ezertaz kexatu, dena iritsiko da.

Uztailaren 23tik aurrera **Joseba Apaolaza • Aktorea** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta



Itziar Madina

Nori interesa, horra legea

Duela hiru aste Franz Fischler Europako Laborantzako Komisarioa Nekazaritzaren Politika Komunaren kanbiamen errealek hitz egiten hasi zen, eta denboran mugatu zituen. Aurtengo irailerako, nekazaritzako Europako ministroen oniritzia nahi luke, lehen lege-aldaketak erabakitzeke, berdin ere, bidean ematen hasteko. Eta udaberriko, Franz Fischler Europako Batasuneko erresumen arteko harmonia ardiesteaz berantetsia da. NPAREN aldaketa bera azkenik, hiru zutabetan oinarrituko du: ingurugiroaren zaintzea, hazienden ez-bortxatzea, eta hazkurri garbi bezain sanoen ekoiztea. Hona larriki laburbildurik uler daitekeena, eskuin eta ezker irakurririk, bati eta besteari galdegini proposamenak zer ote dakarren. Galdera arruntak egin dituzagun, bada. Laborariak ekoizpen txarrak egiten ditu nahita, bere erosleak pozoitzeko? Kabalak ehunka

dauden hormigoi edo zementuzko itxituretan pentsu prestatuekin egunean bi aldiz bazkatzen ditu, animaliak sufritzen ikustea plazerra zaiolako? Belarren eta sasien garbitzeko, edota mamutzek gero eta maizago funditzen dizkieten landareak begiratzeko, «fitosanitario» produktu kimikoen zale amorratua da? Ados naiz, sua gustatzen zaiola bati baino gehiagori, edota zuhaitzak arrazoirik gabe botatzea... edo nik dakit zer. Baina laborantzaren jarduerak berak eskatzen duena du bat-batean, baitezpadakoa ikusten Europako Ministroen buruzagitzak. Nork laguntzen ote du argitasun maila horretara heltzeko? Errekak garbitzeko errauts magikoa aurkitu duen multinazionalak, ala dena konponduko duen jitez moldatu hazi transgeniko saltzaile, «nekazaritza iraunkorraren» aldekoak? Galderak falta diren arren, oharra: nori interesa, horra legea.